



BILBAO LARRONDO, Luis. *Urbanismo en torno a la Ría del Nervión. El Gran Bilbao 1945-1975.*

Bilbao: Itsasmuseum Bilbao (Maritimidades-Maritimotasunak), 2021, 343 or., testuak, taulak, argazkiak, mapak, planoak, aurkibidea, bibliografia, sarrera, hitzaurrea, aurkezpena eta hitz-atzea. ISBN: 978-84-09-25683-9.

Urbanismo en torno a la Ría del Nervión izenburu-azpian, Itsasmuseum museo-erakundeak 'Maritimotasunak' deritzon Itsas Gaien Ikerketako Bilduma espezializaturen 8. zenbakia plazaratu du, 2021. urteari dagokiona, hain zuzen ere. Oraingo honetan liburu monografikoak Luis Bilbao Larrondo historialari ezagunak maisuki buruturiko testua biltzen du bere orrialdeetan, artxibo eta fondo anitzetatik lorturiko argazki-sorta oparoaz hornitua.

Esan bezala, ekarpen honen egilea, dagoeneko hogeitertirik gorako eskarmentua duen historiagile-ikerlari jaioa dugu, ohienez hirigintzaren historiaz luze jardun duena, batik bat Bilboren inguruan,

Bizkaian eta Euskal Herriko historia garaikidean gauzatu izan den hirigintzaren eta hiri-garapenaren baitako promozio, proiektu eta bestelakoeharrietarako xehetasunak eta aferak modu finean iruten zein eguneratzen. Aipatu egoera garaikide horretan, batez ere XX. mendeko erdialdetik hirugarren herenerainoko denbora tartea izan du hizpide nagusi. Hortxe kokatzen baita, gainera, esku artean dugun emaitzaren azpituak proposatzen duen zehaztapena: *El Gran Bilbao 1945-1975*. Bilbo Handia edota *Gran Bilbao* zeritzon korporazio horrek, izan ere, mende laurden pasatsuko bizitza ukan zuen, gerraostetik trantsizio politikoaren lehen urratsetara arte.

Goiko paragrafoan diogun legez, ikerketa akademikoan aditua den Luis Bilbao Larrondok, historiografiaren alorrean sakontzen ditu bere lan egiteko metodoa nahiz baliabide teorikoak. Hala ere, funtsean hirietako bizimoduan, gizarte egituratu urbanoan, maiz auzuneetan eta gizataldeetan erruz arreta jartzen duen aldetik; hiri-espazioaz, arkitekturaz, eraikuntzaz eta etxebizitzaz gain horien parean zeutzan baldintzetan, egoera soziopolitiko ekonomikoetan eta beraz, kultur agerpenetan ere baduen islak antropologia-etnografiaren esparruetara behin baino gehiagotan bultzatu du ikerlari-arnasa eta sena, ikuspuntu hauekiko ekarriak aipagarriak izanik.

Sano baliagarria eta guztiz gomendagarria den ekarpen konkretu honek, hiru parte nagusi eta bederatzi kapitulu barnebiltzen ditu, atal printzipal bakoitzak hiruna kapitulu dituelarik. Aurkibidearen estruktura argigarri honexek Bilbo Handia entitatea zenaren eskualde-ikuspegira erakartzen gaitu lehenengo eta behin. Bilboko metropoli industrialaren ingurumarian sortu zen korporazio administratiboan eta haren egiteko jakin baten errailetan murgiltzen gaitu; XX. hamarkadako lehen urteetan gorpuztu zen eskualdeko plangintza orokorra, alegia. Errealitate urbano paradoxiko gisa interpretatzen du autoreak 50eko hamarraldi hartako egoera jasanezina eraikuntza klandestinoaren eta ikusiz ere, ia ikusezin bilakatzen zen txabolismoaren arazoaz.

Era berezitan Bilboko itsasadarraren aldamenean, eskuin eta ezker aldeko hiri-puztearen norabideak eta hutsegiteak dakartzkigu gogora, Ibaizabal-nerbioi ibaia bizkar-hezur edukiz, haren zonalde industriadunaren hedaturiko burdin aranaren Bilbotik Abrarainoko ibilbidean. Lurraldeak zabaldu ahala, urgentziazko planak ez ezik aiataturiko eskualde plangintza orokorrak berrikusketak izan behar zituen, besteak beste hirigintza-tresna berriak posible eginez; hala nola Asua arana ordenatzeko plangintza orokor berezia eta lurzoru hauetarako beregi aurreikusi eta deitu zen eraikuntza-ideien nazioarteko lehiaketa. Azpiegituretan konplexutasuna erakutsiko zuen eremuak, komunikazio sistema eraberrituak ere beharrezko zituen, etorkizun hurbilean portuak beteko zuen papera, adibide gisa, ekonomikoki oso adierazgarria baitzen.

Bilbo Handia delako erakunde administratibo-politikoak beta aparta eskaintzen zien orduko hiri-eragile eta kudeatzaile frankistei zein teknokratei, Bilboko hainbat enpresa-gizonen nahiak abiarazteko, horietako batzuk hirigintzaren arloan pausatua, eta hortaz metropoliko zenbait

udalerrri Bilbok bereganatu zitzan (Asuako arana, kasurako) baldintzak ondu zituzten, itsasadarraren presentziak oraindik ere zeukan berebiziko garrantziaz ohartuta. Horiek gurariak bitarteko, Bilboko portuak ere, bai fisikoki eta sinbolikoki aldaketak pairatu beharko zituen, hiri-portu edota portu urbano izatetik itsas portu izateraino, Abrako super-portuaren mesedetan. Ustez etorkizunera zuzenduriko aurrerapenen ildoan, super-portuaren proiektu eta ezarpen-prozesuak egituraketa berria baimenduko zion Bilboko metropoliari, hiri-trama ekoitziak hantzen barra-barra agertuz eta finkatuz, sarri askotan hirigintza-arauen kontrolpetik at, nahiz zeharo aldentuta. Liburuaren bigarren zati hau adierazitako asmooz izan zuten jarraipenarekin osatuko da, jadanik Bilboko Udala ere hiribilduko hirigintzaz kezkatzen hastearekin batera, Bilboko Hiri-antolaketaren Plangintza Orokorren bigarrenengo errebisioa martxan jarri zutenean.

Soluzio-bideak, hala ere, ziurtasun gabeak izan ziren denbora-tarte arazotsuan barneratuko gaitu hirugarren parteak. Metropoliko ordenazioaz gaindi, XX. gizaldiko 70eko hamarkada heltzearekin batera Bilbo Handiaren politikek beste ikusmira batzuk izango zituzten, inoiz hezuramituko ez zirenak, Nerbioi ibaipetik joan behar zuen tunelaren adinakoak. Eskualdeko espazioaz harago Iparraldeko metropoli handi baten nahiak entzungai bilakatuko ziren, kurioa bada ere, Bilbo Handiko eskualdea bere horretan gainbeheran erortzeko zegoen uneetan. Hortik aitzinera ezjakintasunezko eta segurtasun gutxiko urtealdia irudikatuko zen, Bilbo Handiaren bulego teknikoak eragindako aurreikuspenekin debate eta eztabaidak ugarituz. Nahikoa ez balitz, Nazio-mugimenduaren idazkaritza orokorrak hirigune sorberriak imajinatzen zituen Bizkaiko jaurerrian, eskualde baterik beste erregio urbano baterako jauziak irudikatuz.

Idazki honetako denbora-mugaren azken muturra ukituta, Bilbo Handia deituaren 1975eko panoraman, industriaren krisia ikuskatzen zen hodeiertzetik eta horrekin batera, metropoli sistemaren dinamikak ere maldan behera etorriko dira, produkzio industrial berantiarrekin. Zoruen erregimenaren eta hiri-antolaketaren legearen erreformak gertatuko ziren (1956tik indarrean mantendu zena), eta bien bitartean Euskal Herriko eta Nafarroako Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Delegazioak ere postura hartu eta nabarmenduko zuen Bilbo Handiaren gorabehera eta zioetan. Aurrerantzean, Bilboko eta ibaiertzeko hiri-etorkizuna erabat irekia iragendatuko zen, duda bago, gure egunetara dakarzikiguten pasarteak zeintzuk ziren dakigula.

Idazkiaren amaiera epilogo ohartu eta laburgarri batek ematen digu aditzera, hain justu ere erreferentzia bibliografikoen aurretik. Iturri hauek guztiak, nola ez, Luis Bilbaok darabilen metodologiaren araberrako jatorrizko material original mordo batzen dute, askotan orain arte argia ikusi gabekoak eta ikerlan honetarako berreskuratuak, landa-lan izugarriaren lekuko. Lehendabiziko orrietan Carlos Sanbricio katedradunaren hitzurre edo sarrera kementsu baizen kritikoa ere badakar, Luisek darabiltzan ikergaietan ezaguera miresgarria erakusten duena. Arkitekturaren eta hirigintzaren historialaria izanik, hirigintzako teknika edo praktika eta horri buruzko historia gauza bera ez direla defendatzen du Paris I Phantéon-Sorbone Unibertsitatean doktoregoa eskuratu eta gerora, Madrileko Unibertsitate Politeknikoan Arkitektoen Goi Eskolako irakasle izan den pertsonaia ospetsuak. Luis Bilbaoren tesi zuzendaria eta adiskidea berori.

Hastapenean genion lez, saiakera honetako irudiak ere ez dira ilustrazio soilak izan, baizik eta idatziz adierazitakoaren hariari tente eutsiz, ikusizko kontakizuna areagotuz garrantzizko ñabardurak finkatzen dituzten elementuak. 'Maritimotasunak' Bilduma honen nahietako bat horixe baita, aspektu ikonografikoen presentzia goraiatzea eta horretan ere asmatu duela konfirmatu genezake. Bilboko Itsasmuseum erakundearen laguntzari esker argitaratu den bolumenak, museko zuzendaria den Jon Ruigomezen aurkezpenarekin bideratzen ditu orriak.

Isusko Vivas Ziarrusta
Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea